

# DOSIER PEDAGÓGICO PARA CENTROS EDUCATIVOS

**LES SAISONS**  
malandain • vivaldi, guido



© Olivier Houeix







# SOMMAIRE

## ÍNDICE



**kuskizuna deskubritu aintzin**

**05**

**Ikuskizuna eta gero**

**17**

**Ikasgelan lan egiteko argibideak**

**23**

**Kontaktuak**

**26**



**Antes de descubrir el espectáculo**

**29**

**Tras el espectáculo**

**41**

**Pistas para trabajar en el aula**

**47**

**Contactos**

**50**









IKUSKIZUNA

# DESKUBRITU

AURRETIK







Cendrillon  
L'OPÉRA DE MONTECARLO  
DU 15 AU 19 OCTOBRE  
MONTENEGRO  
MONTENEGRO  
MONTENEGRO

Montenegrino



# ZENTRO KOREOGRAFIKO NAZIONAL MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Hemendik gutxira deskubrituko duzun lanaren egilea Thierry Malandain koreografo eta Malandain Ballet Biarritzen zuzendariak sortu zuen 1998az geroztik. Malandain Ballet Biarritz Zentro Koreografiko Nazionala (CCN) da.

## Zentro Koreografiko Nazional baten izaera eta helburuak

### Zer da Zentro Koreografiko Nazional bat?

19 zentro koreografiko nazional (ZKN) daude Frantzian. Interes orokorreko beren kultura-helburuak Estatuak zehaztu ditu. Eta, horrenbestez, ZKN guztiek finantzazio publikoa jasotzen dute beren helburuak bete ahal izateko. Akitania Berriko ZKN Pirinio Atlantikoetan, Malandain Ballet Biarritzek (hori da bere izen osoa) ondokoen diru-laguntza jasotzen du: Biarritzeko hiria, Kultura eta Komunikazioaren Ministerioa /DRAC Akitania Berria, Akitania Berriko Eskualde Kontseilua eta Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseilua. Thierry Malandain koreografoak zuzentzen du 1998. urtean sortu zenetik eta Biarritzeko Gare du Midi antzokian du egoitza.

### Zeintzuk dira bere helburuak?

#### 1. Lan koreografikoak sortzea:

ZKN Malandain Ballet Biarritzen kasuan, Thierry Malandain koreografoak sortzen ditu lan koreografikoak (normalean ballet izena jasotzen dute). XVI. mendean sortua, ekintza dantzarien keinuak, mugimenduak eta portaerak soilik erabiliz irudikatzen duen antzerki-genero bat da balleta. Libreto izenez ezagutzen dugun narrazio-gai batean oinarritua –edo ez–, balletak dantza, musika, jantziak eta dekoratuak uztartzen ditu. Malandain Ballet Biarritzen kasuan, balleten interpreteak dantzari profesionalak dira. Guztiek ere, dantza klasikoko (dantza akademikoa izenez ere ezaguna)

prestakuntza jaso dute. Thierry Malandain koreografo “neoklasikoa” dela esan ohi da askotan, bere koreografia-idazkeraren oinarria dantza klasikoa delako. Aipatua, bere inspirazioaren eta nahi artistikoen arabera egokituko duen hizkuntza bizi bat da Malandaintzat.

#### 2. Lanak hedatzea:

Lana sortu ostean, ikusleen aurrean antzetzu beharra dago. ZKNk tokiko, eskualde, nazio mailan eta nazioartean aurkezten ditu Thierry Malandainen lanak. Malandain Ballet Biarritzek ehun ikuskizun inguru eskaintzen ditu urtero, horien herena atzerrian: Europa, AEB, Latinoamerika, Errusia, etab.

#### 3. Ikusleak dantzarekiko sentsibilizatzea:

ZKNren beste helburuetako bat da dantza eta arte koreografikoa ikusleengana gerturatzea. Horretarako, sentsibilizazio eta heziketa artistiko eta kulturaleko ekintza ezberdinak garatzen ditu: ikuskizunak, bisitaldiak antzokira eta bere atzealdera, entsegu eta irakasgai irekiak, tailer praktikoak, erakusketak, etab.

#### 4. Babesa eskaintzea beste dantza konpainia batzuei (Harrera Estudioa):

“Harrera Estudioa” ekimenaren baitan, ZKNk bere babesa eskaintzen die dantza konpainia eta koreografo independente ezberdinei: Gare du Midiko estudioak uztea, koprodukzioak, laguntza teknikoa, ikuspegi artistikoa edo eragile profesionalekin harremanetan jartzea.

## ZKN-a deskubritu



[Malandain Ballet Biarritz deskubritu](#)



## Thierry Malandain

Thierry Malandain ZKN Malandain Ballet Biarritzeko zuzendari koreografoa da 1998. urtean sortua izan zenetik.

Parisko Opera Nazional, Rhingo Opera Nazionaleko Ballet eta Nancyko Antzokiko Ballelean dantzatu ostean bere konpainia propioa sortu zuen 1986an. Ezkeroztik, 80 koreografiatik gora sortu ditu. Egun, munduko koreografo ospetsuenetako bat dugu Thierry Malandain.



## En quelques dates

**1959** Petit Quevilly-n (Seine-Maritime) jaioa. Monique Le Dily, René Bon, Daniel Franck, Gilbert Mayer eta Raymond Franchettiren erakaskuntza jaso du

**1977** Dantzaria Parisko Opera Nazionalean, Rineko Baletan eta Nancyko Ballet Antzoki Frantsesean

**1986** « Temps Présent » konpainiaren fundazioa (Elancourt eta Saint-Etienne)

**1992** Esplanade Saint-Etienne Operan instalatzea, konpainia elkartu gisa

**1998** Biarritzeko Zentro Koreografikoaren zuzendaria

**2004** Dantzaren Benoisetarako izendapena eta atzerriko ikuskizun onenaren Kritikaren Saria, *Les Créatures*-erako, Habanako Baletoko Nazioarteko XIX. jaialdian.

**2005** Sabino Arana Fundazioaren Kultura Saria Bilbon

**2006** Parisko Opera Nazionaleko Balletarako sortutako *l'Envol d'Icare* delakoarekin, dantzako Benoisetarako izendapena

**2009** Maitaldia festibaleko zuzendaritza artistikoa

**2012** Kritikaren prezioa *Une Dernière chanson*-erako

**2014** Taglioni European Ballet Award, *Errauskina*-rako « Koreografo onena » kategorian

**2017** Urteko « konpainiarik onenaren » saria, *Noe*-rentzat Kritikaren Elkarte Profesionalak emana

**2018** Dantzaren Benoisetarako izendapena *Noe*-rentzat

**2019** Arte Ederren Akademian izendatua, koreografia-atalean

**2020** SADC prezioa, koreografia sailan

## Bere estiloa

Bere estiloa "neoklasikotzat" jo da: erroak ballet klasikoan ditu baina, aldi berean, interpretazio garaikide eta pertsonala eskaintzen du.

"Konplexurik gabeko ballet klasikoarena da nire kultura eta hori da nik garatzen dudana. Bere kode artistiko eta sozialak beste garai batekoa direla onartzen badut ere, nire ustez lau mendeko historiarengandik jaso dugun material guzti horrek baliabide paregabeak eskaintzen dizkio dantzariari. Dibertitzea, maite dudan dantza lortzea da nire nahia, klasikoa izango dena zenbaitentzat, garaikidea bestentzat. Plazeraren arrastoa uzteaz gain, jainkotasunarekin adiskidetu nahi duen dantza, izatearen zailtasunei erantzuteko".

Thierry Malandain



## Artista koreografikoak

Malandain Ballet Biarritzek 22 artista koreografiko ditu: 11 emakumezko dantzari eta 11 gizonzko dantzari. Guztiek ere, prestakuntza klasikoa dute eta lurraldez desberdinetatik datoz : Frantzia, Belgika, Espainia, Italia, Mexiko edo Japonia.

## Thierry Malandain eta Malandain Ballet Biarritz deskubrituz



[Bisita birtuala](#)  
[Gare du midi antzokira](#)



[Thierry Malandain estiloa](#)



[Ikuslearen minutua](#)



[Malandain eta musika](#)



[Dantzari izan](#)  
[Malandain Ballet Biarritzen](#)



[Malandain Ballet Biarritzen webgunea](#)



[Malandain Ballet Biarritzen Youtube kanala](#)









# RAREKIKO OBRAREKIKO LEHEN HARREMANA

## Urtaroak

koreografia  
musika  
dekoratua eta jantziak  
argiak  
jantzien ekoizpena  
dekoratuen ekoizpena  
osagarrien ekoizpena  
dekoratu eta osagari  
ekoizpen laguntzaile

Thierry Malandain  
Antonio Vivaldi, Giovanni Antonio Guido  
Jorge Gallardo  
François Menou  
Véronique Murat, Charlotte Margnoux,  
Anaïs Abelen laguntzarekin  
Frédéric Vadé  
Annie Onchalo  
Nicolas Rochais, Gorka Arpajou,  
Félix Vermandé, Raphaël Jeanneret,  
Christof t'Siolle, Txomin Laborde-Peyre,  
Maruschka Miramon, Karine Prins,  
Sandrine Mestas Gleizes, Fanny Sudres  
eta Fantine Goulot

## baleta

22 dantzariantzat


« Château de Versailles Spectacles erakundeko zuzendari Laurent Brunerren eta Versaillesko Errege Operako lehen orkestra-zuzendari eta biolin-jole Stefan Plewniak en idea batean oinarritutako ballet honek Antonio Vivaldiren *Lau Urtaroak* lan oso famatua eta "apaiz kaskagorriaren" herrikide eta garaiakide Giovanni Antonio Guidoren *Urteko lau urtaroak* lana –askoz ezezagunagoa dena– uztartzen ditu.

Lanaren burutzeari dagokionez, sorkuntza, oreka eta harmoniarekin lotura estua duen lau zenbakiaren eragin argia baitu. Gaineratu beharra dago Guidoren *Urtaroek* "dantza ederraren" ildoak jarraitzen dituztela: XVII. mendean sortu zen mugimendu hori, gorputza eta espiritua gobernatzeko eta mugimendu dotoreak, zintzoak eta arinak gauzatzeko idealarekin. Aipatu ere lau zenbakia Lurrari eta bizitzaren gurpilari lotu ohi zaiela askotan baina azken hori ez dela era zaluan mugitzen beti, batez ere itsustasuna, kirtenteria eta gizagabetasuna ezaugarri dituen gure garai honetan. Vivaldiren lanak emango du naturalagoa eta, halaber, gizatiarra den dantza batez gozatzeko aukera.

Finean, inguruko fantasia poetikoaren bidez adierazteko. Bi hitz horiek baitira, hain zuzen ere, funtsezko denaren adierazle. Hodeiertz osoan zehar barreiatuta dauden petalo beltzen dekoratu batean, hegaldun izaki batzuek espirituaren eta argitasunaren segizioa daramate. Zergatik? *Urtaroak* ballet bat baino ez delako eta ez dagoelako gauza serioagorik, gauza sinesgaitzak baino. »


Thierry Malandain

## Urtaroak baliabideak

 [Urtaroak balletaren zatiak](#)

 [Erreferentzia musikalak](#)

 [Urtaroak bideo azalpena](#)

 [Urtaroak fitxategia](#)



# LAU URTAROAK MUSIKA LANAK

Bere azken balleterako, Thierry Malandainek urtarotetan oinarritutako lan bana idatzi zuten bi musikagile aukeratu ditu.



## **Lau Urtaroak, Antonio Vivaldi**

Antonio Lucio Vivaldi biolinista eta musikagile italiarra Venezian jaio zen 1678an. Apaiz katolikoa ere izan zen. Vivaldi biolinista birtuosotzat hartu zuten bere garaian eta, halaber, musika-lan asko idatzi zituen. Bizirik zegoenean oso ospetsua izan zen Europa osoan. Ondoren, baina, bere lanak ahaztu egin ziren, XIX. mendean birdeskubritu eta XX. mendean berriz ere ospetsu bilakatu ziren arte.

Egun, Antonio Vivaldi XVIII. mendeko musikari eta musikagile nagusien artean kokatzen ohi dugu.

1723 inguruan idatzitako eta 1725an Amsterdamen argitaratu zen *Lau urtaroak* izeneko *(Le Quattro Stagioni)* italieraz bere lanik ezagunena da.

Vivaldiren *Lau urtaroak* lanak lau kontzertuko (concerti) ziklo bat osatzen du. Forma hori Italian sortu zen: hiru mugimendu (azkar, geldo eta azkarra) biltzen ditu normalean eta bakarlari bat edo gehiago orkestrarekin solasean jartzen ditu. Gaurko honetan, biolinak bere doinua orkestrako beste guztien horrekin uztartuko du.

Musika-lan hau, ustez Vivaldirenak diren lau soneto oso deskriptibo ere biltzen dituena, urtaroen iragaitearen bidez ospatzen den naturari eginiko kantu bat da.

Soneto bakoitzaren lehen estrofa:

### **La primavera** (udaberria)

Udaberria iritsi da eta, pozarren, hegaztiak beren doinuez agurtu dute. Eta iturriek, haize zuriaren mende, beren bidea murmurio gozoz bete dute.

### **L'estate** (uda)

Eguzkiak idortzen duen urtaro latzean, gizakia eta animaliak zimeldu egiten dira; eta pinua kiskali.

Kukuak kantu egin du eta berehala usapalak eta karnabak txioz egin dute ihardetsi.

### **L'autunno** (L'automne)

Dantzaz eta kantuz ospa dezatela laborariek, zorioneko uztaren ongizatea Bakoren likoreaz neurri gabe gozatu dute gehienek eta beren poza amaitu da lo daudela.



### L'inverno (negua)

Dardara izoztua elur hotzen artean,  
haize bortitz baten ufada latzean,  
Oina kolpatuz korrika mendi magalean  
Hotzez, hortzak eta  
hortzoiak ikara batean.

Sonetoak, urtaroak irudikatzeko,  
elementuez, animaliez eta usadioetan,  
ospakizunetan eta laborantzan  
oinarritutako gizakien eta naturaren  
arteko harremanez baliatzen dira.


## Lau Urtaroak, Giovanni Antonio Guido

Giovanni Antonio Guido Antonio Vivaldiren garaikidea da, 1675ean sortu baitzen Genoan (Italia). Vivaldi bezalaxe, biolinista eta musikagile barrokoa izan zen baina askoz ezezagunagoa da, berari edo bere lanari buruzko informazio urria iritsi baitzaigu.

Musikako Maisu gisa lan egin zuen Parisen, Frantziako erregeorde Orleansko Filiperen zerbitzura.


Guidoren *Lau urtaroak* (jatorrizko izenburua: *Scherzi armonici sopra le Quattro stagioni dell'anno*) Versaillesen argitaratu ziren, Vivaldirenak ere argitaratu ziren urte haietan. Bigarren horiek baino askoz lehenago idatzi zirela uste da, ordea. Izan ere, badirudi 1716-1717an idatzi zirela Jean-Antoine Watteau margolariak eginiko gai bereko margolan batzuen omenez.

Guidok "frantziar erara" idatzi zuen bere lana. Dantza ezberdinak biltzen dituen segida bat da: gabota, minuet, bourrée, passepied, rigaudon, tambourin, etab. Frantziako musikako formarik zabalduena izan zen XVII. eta XVIII. mendeetan.



Giovanni Antonio Guido-ren portreta Antoine Watteau-rengandik, 1720-1721 inguru, Louvres Museoa

Lanak, halaber, *Urtaroen* nortasunak izeneko poema anonimo batzuk ere biltzen ditu.



Cérés ou l'été (1717-18) Jean-Antoine Watteau, Washington, National Gallery of Art



### Urtaroen nortasunak

Denbora hilkorrak hegaz egiten du,  
gizakiak ere hegaz egiten du,  
Gauaren atzetik eguna dator,  
egunsentiak bere lekua hartu du,  
Urtaro bakoitzak berandutu  
gabe aurrera egiten du;  
Plazer gozoak dasta ditzagun,  
oraina gure ondasuna dugu.

Hona hemen urtaro bakoitzaren lehen estrofa:

### Udaberria

Negu tristeak alde egin du,  
udaberriak hartu du bere lekua  
Dena loratzen ari da berriz,  
mundu osoa gozatzen ari da;  
Errekak, bere ibilian, ez du izotzik,  
Larre irekietan saltoka dabil arkumea.

### Uda

Airea sutan dago: Febok,  
bere bide distiratsuan,  
Lehoi suminkorarekin egin du topo.  
Zefiro desagertu egin da,  
landazabal kartsuan  
kukuarena da doinu bakarra.

### Udazkena

Udazkenaren itzulera  
gogoz ospa dezagun  
Plazer gozoez eta jokoez larretan  
goza dezagun  
Floraren agintaritza amaitu da baina  
Pomona aberatsak, lagun,  
oparirik onena diren lore ederrak  
eskaini dizkigu.

### Negua

Hotzaren aroan natura tristetu da  
Eguzki ahulak gizakiengandik  
ezkutatu da  
Animalien lurrean sastraka dago  
barra-barra  
elurrek eta izotzek nahieran  
estaliko dutena.

## Musika barrokoa

Arestian esan bezala, Vivaldi eta Guido musikari garaikideak dira. Beren musika-estiloa Barrokoa izeneko arte-mugimendu baten barruan kokatzen da.

### Tolosako baroko taldearen musika barokoaren definizioa

« Musika barrokoa gutxi iraun zuen baina bere ospea urte asko igaro ostean berreskuratu zuen. 1600. urtean sortu zen eta 1750ean itzali zen, apalki; hau da, 150 urte baino ez zuen iraun.

Barroko hitzaren jatorria portugesezko barroco hitza da: "perla irregularra" esan nahi du. 1580tik aurrera gailendu zen, klasizismoari kontrajarria. Pintura, arkitektura edo eskultura bezalako eremuetan indar handia izango zuen barrokoaren estetikak irregulartasuna, formen aldaketa eta mugimendua defendatzen zituen.

Musika barrokoa Italian sortu zen eta bere egilerik nagusia Claudio Monteverdi (1567-1643) izan zen. Ondoren, Europa osoan zehar zabaldu zen eta musikagile ospetsuak agertu ziren herrialde ezberdinetan: Georg Philippe Telemann eta Johann Sebastian Bach Alemanian, Alessandro Scarlatti Italian, François Couperin eta Jean Philippe Rameau Frantzia eta beste batzuk ere Austrian, Ingalaterran edo Espainian.

Musikagile barroko ugarien artean, hiruk osatzen dute mugimendu honetako gailurra: Antonio Vivaldi (1678 - 1740), Johann Sebastian Bach (1685 - 1750) eta George Friderich Handel (1685 - 1759). [...]





▲  
*Instruments de musique*, Evaristo Baschenis (1617-1677)  
Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Bruxelles

Musika barrokoan gehien erabili ziren instrumentuak ondokoak dira: txirula ezpia, viola da gamba, klabezina, lautea edo organoa.

Barrokoaren asmakizun ederrenetako bat da baxu jarraitua. Musika barrokoaren ezaugarri nagusia, bakarlarri baten edo biren inguruan eraikitako egitura bat da. Zati batean zehar instrumentu grabe batek edo gehiagok (biolontxelo, biola edo kontrabaxua, esaterako) jotzen duten oinarritzko lerro bat da.

Ez dago musikagile barrokoa artista garbitzat hartzerik. Izan ere, musikagile barrokoak errege, maisu baten edo Elizaren zerbitzura lan egiten baitzuten. Ondorioz, eskatzen zitzaien musika idaztera behartuta zeuden. Musikari barroko batek ez zuen bere musikaren

eskutik bizitzeko eta nahi zuen musika guztia idazteko askatasunik. Musika barrokoaren zerbitzari bat zen.

Aro barrokoan zehar, gerora, aro klasikoan azkar egonkortuko ziren musika-forma asko agertu ziren: opera, sonata, bakarlaridun kontzertua eta sinfoniaren hazia den concerto grossoa.

Kontraste handiko estiloa da musika barrokoa: grabe/akutu, ilun/argi, minor/ maior akordeak ».

Iturria : [baroquetoulouse.com/mediation/le-baroque-pour-les-nuls](http://baroquetoulouse.com/mediation/le-baroque-pour-les-nuls)









URTAROAK  
**IKUSKIZUNA**  
ETA GERO



# LANA ULERTZEKO GAKOAK

## Lanaren egitura: lau urtaro, lau koadro

Balletak lau koadro ditu: udaberria, uda, udazkena eta negua (Guidoren neguak amaiera ematen dio lanari).

**Lehen zatia** : urtaroaren hasieran, beltzez jantzitako dantzari talde bat eta Vivaldiren musika (3 mugimendu urtaroko).

**Bigarren zatia** : jarraian, Guidoren musika eta jantzi barroko deigarriak daramatzaten bi edo lau dantzari.

**Hirugarren zatia** : urtaroa amaitzeko, Guidoren musika eta haragi koloreko jantzi estua eta petalo itxurako eskularru beltzak daramatzaten dantzariak (bat, bi, hiru edo lau). Hirugarren zatiak urtaro bakoitzaren amaiera eta hurrengoaren hasiera markatzen du.

Guidoren musikaz lagundutako amaieran, dantzari guztiek haragi koloreko jantzi estua eta petalo itxurako eskularru beltzak daramatzate.

Balletean Vivaldiren *Lau urtaroak* osotasunean entzungo dira. Guidoren lanaren kasuan, ordea, zatiak baino ez dira entzungo.



Neguaren jantzien maketa, Jorge Gallardo

## Dekoratua

Petaloak irudikatzen dituzten 115 piezez osatuta dago dekoratua. Dekoratu osoa Malandain Ballet Biarritzen tailerretan sortu eta eraiki da.


## Argiak

Argiak funtsezko osagaia dira ballet baten eszenografian. Giroa, atmosfera, dekoratu bat sortzen laguntzen dute. Beren presentziak, ausentziak eta koloreek berezko esanahia daukate eta kontaeraren garapenaren edo emozioen adierazpenaren parte dira.

Arestian esan bezala, balleta zati ezberdinetan oinarritzen da. Zati bakoitzak bere argi eta girotze propioak ditu.

Urtaro bakoitzaren amaieran, adibidez, artistek haragi koloreko jantzi estuak eta petalo itxurako eskularru beltzak daramatzatenean, dekoratu osoa beltza da.

PETALES NOIRES DÉCOR. / 1.20 x 0.90 /



17 metros

Quatre Seasons Vivaldi.

▲  
Dekoratuaren maketa, petala handiekin  
Jorge Gallardo-k sortua



## Jantziak eta osagarriak

Hiru jantzi mota erabili dira:

Jantzi beltzak: Top eta gona beltzak emakumeentzat, top eta praka beltzak gizonentzat;

Jantzi barroko deigarriak: jantzi beltzen gainean eramaten dira. Urtaoren arabera, koloreak ezberdinak dira;

Haragi koloreko jantzi estuak eta petalo itxurako eskularru beltzak.


Balletaren zati bakoitzean jantziei loturiko kode bat aplikatzen da.

Vivaldiren musikarekin dantzariak beltzez doaz eta Guidoren musikarekin urtaro bakoitzeko kolore esanguratsuenak irudikatzen dituzten jantzi barroko deigarriak daramatzate dantzariak.

Uda jantziaren maketa,  
Jorge Gallardo-k sortua



Jorge Gallardoren lehen krokisa,  
dekoratuen eta jantzien sortzailea



Udaberria jantziaren maketa,  
Jorge Gallardo-k sortua

Vivaldiren *Lau Urtaroak* lanaren zatirik erabiliena nabarmentzea erabaki du Thierry Malandainek, egungo gizartearen metafora eta gizateria ilun baten erretratu gisara. Vivaldiren musika ez da oso dramatikoa eta jantzien eginkizuna, ondorioz, dimentsio hori azalaraztea da. Aldi berean, Guidoren musika jantzi barrokoen bidez goratzea erabaki du. Dantza barrokoa "dantza ederra" gisa definitu ohi da. Lan honetan bilatzen dena da ideal zaharra, edertasuna eta ontasuna irudikatzea da, bai eta idealizatutako iragan bat islatzea ere.



## Naturari eginiko kantua

*Urtaroetan* oinarritutako Vivaldiren eta Guidoren lanak naturari, bere zikloi eta ezaugarriei eta naturaren eta gizakiaren arteko harremani eginiko omenaldi bat dira, ezberrik gabe. Aurrera doan denboraz ere hitz egiten digutela gainera dezakegu.

XVIII. mendekoak direnez, aro baten lekuko dira. Baina, aldi berean, dimentsio unibertsala dute. Izan ere, gizakia, naturarekin duen harremanarekin gaintetik, bere mende baitago.

Thierry Malandainen ballet honetan, naturaren eta gizakiaren arteko harremana hiru ikuspegi ezberdinetatik jorratu dela esan genezake:

Egunoa, Vivaldiren musikarekin: beltzez jantzitako dantzariak gizateria ilun bat irudikatzen dute;

Idealizatutako iragan batena, jantzi barroko deigarrien eta Guidoren musikaren bitartez: gizakia naturarekin harmonian bizi da;

Zerbait galdu duen, lur jota dagoen gizateria batena, haragi koloreko jantzien eta petalo itxurako eskularru beltzen bitartez irudikatua.

## Urtaroak arte pikturikoan

Gai hau luze eta zabal jorratu da artearen historian zehar. Hona hemen zenbait adibide:

### *Udaberria, Sandro Botticelli*

[Lan honi buruzko informazio gehiago lortzeko, jo ezazu DSDEN 64 Arte Plastikoetako Departamentuko Philippe Mercé kontseilariaren bideora.](#)



▲  
La Primavera (vers 1480) - Sandro Botticelli  
Musée des Offices de Florence, Italie



**Lau Urtaroak**  
**Giuseppe Arcimboldo**

*Lan honi buruzko informazio gehiago lortzeko, jo ezazu DSDEN 64 Arte Plastikoetako Departamentuko Philippe Mercé kontseilariaren bideora.*



▲  
*Quattro Stagioni* (entre 1563 et 1573) - Giuseppe Arcimboldo  
Musée du Louvre, Paris









IKASGELAN

# LAN EGITEKO

ARGIBIDEAK







IKASGELAN

# LAN EGITEKO ARGIBIDEAK

IKASGELAREN ETA IKASMAILAREN ARABERA  
EGOKITU BEHARKO DIRA

## Testuinguruan kokatzea

Bitarteko digitalak erabiliz:

- Aurkezpena, ZKN Malandain Ballet Biarritz eta Thierry Malandain

## Lehen hartu-emanan lanarekin

- Balletetik ateratako argazkiak deskribatu eta lehen iritziak agertu
- Musika-zatiak entzun ikasgelan
- Balletaren zati bat ikusi

## Urtaroak tematikaren inguruko lana

- Ikasleen mailaren arabera, mito ezberdinen inguruan lan egin eta literaturan, arte piktorkoan, zinemagintzan eta antzekoetan izan dituzten adaptazioak aztertu.
- Diziplina anitzeko ikuspuntua: literatura, arte plastikoak, istorioak, lurra eta biziaren zientziak.

## Obra aztertzen eta horren inguruan hitz egiten ikastea

- Ikasleek ikuskizunari buruzko beren iritziak deskribatu beharko dituzte, ondokoak adieraziz horretarako...

Soinu bat..  
Kolore bat..  
Gai bat..  
Mugimendu bat..  
Emozio nagusia...

- Eszenografiaren inguruan lan egitea: ikasleek dekoratua, argiak, jantzia eta osagarriak deskribatu beharko dituzte. Beren eginkizunaren, paperaren, eta igortzen duten mezuaren inguruan eztabaidatu eta hausnartu.

- Obraren kritika pertsonala egiteko eskatuko zaie ikasleei.

# KONTAKTUAK

## ■ Malandain Ballet Biarritz

**Laura Delprat**, Jarduera kulturalen kudeatzaile  
l.delprat@malandainballet.com  
tel. + 33 (0)5 59 24 62 09

**Ione Miren Aguirre**, Artistikoa eta pedagogikoa  
i.aguirre@malandainballet.com  
tel. + 33 (0) 6 08 53 16 69

**Carine Aguirregomezcorta**, Proiektuen administratzailea: Arte eta Ingurumen Programa  
c.aguirregomezcorta@malandainballet.com  
tel. + 33 (0) 6 16 13 47 10  
www.malandainballet.com



avec le généreux soutien d'  
**Aline Foriel-Destezet**













ANTES DE  
**DESCUBRIR**  
EL ESPECTÁCULO





Cendriilton  
SUNDAY 27th MARCH 7PM  
SATURDAY 14th APRIL 7PM  
FRIDAY 13th MAY 7PM  
THURSDAY 10th JUNE 7PM  
WEDNESDAY 7th JULY 7PM  
TUESDAY 4th AUGUST 7PM  
MONDAY 1st SEPTEMBER 7PM  
SUNDAY 29th SEPTEMBER 7PM

malandain  
malandain



# EL CENTRO COREOGRÁFICO NACIONAL MALANDAIN BALLET BIARRITZ

La obra que está a punto de descubrir ha sido creada por Thierry Malandain, coreógrafo y director del Malandain Ballet Biarritz desde 1998.

Malandain Ballet Biarritz es un Centro Coreográfico Nacional (CCN).

## Carácter y misiones de un Centro Coreográfico Nacional

### ¿Qué es un Centro Coreográfico Nacional?

En Francia hay 19 centros coreográficos nacionales (CCN), cuyas misiones culturales de interés general han sido definidas por el Estado. Por lo tanto, los CCN reciben financiación pública para poder llevar sus misiones a buen puerto. El CCN de Nueva Aquitania en Pirineos Atlánticos, Malandain Ballet Biarritz (su nombre completo) es subvencionado por la ciudad de Biarritz, el Ministerio de la Cultura y de la Comunicación / DRAC Nueva Aquitania, el Consejo Regional de Nueva Aquitania y el Consejo Departamental de los Pirineos Atlánticos. Dirigido desde su creación en 1998 por el coreógrafo Thierry Malandain, está instalado en el teatro de la Gare du Midi de Biarritz.

### ¿Qué misiones tiene?

#### 1. Creación de obras coreográficas:

En el CCN Malandain Ballet Biarritz, es el coreógrafo Thierry Malandain quien crea obras coreográficas que tradicionalmente llamamos ballets. Nacido a finales del siglo XVI, el ballet es un género teatral cuya acción se representa solamente mediante los gestos, movimientos y actitudes de los bailarines. Basándose –o no– en un tema narrativo, conocido también como libreto, un ballet fusiona danza, música, vestuario y decorados. En el Malandain Ballet Biarritz, los intérpretes de los ballets son bailarines profesionales y todos ellos han recibido formación en danza clásica

(a veces conocida también como danza académica). Se dice con frecuencia que Thierry Malandain es un coreógrafo “neoclásico”, porque la base de su escritura coreográfica es la danza clásica, que él considera como una lengua viva que adapta en función de su inspiración y de sus intenciones artísticas.

#### 2. Difusión de obras:

Una vez se ha creado la obra, hay que representarla ante el público. El CCN organiza la difusión de los ballets de Thierry Malandain a nivel local, regional, nacional e internacional. Malandain Ballet Biarritz ofrece una media de cien espectáculos al año, un tercio de ellos en el extranjero: Europa, Estados Unidos, América Latina, Rusia, etc.

#### 3. Sensibilización de públicos en torno a la danza:

Otra de las misiones del CCN es permitir al público acercarse y acceder al arte coreográfico gracias a distintas acciones de sensibilización o de la educación artística y cultural: espectáculos, visitas al teatro y a sus bambalinas, ensayos y clases abiertos al público, talleres prácticos, exposiciones, etc.

#### 4. Apoyo a otras compañías de danza (Estudio de Acogida):

En el marco del dispositivo “Estudio de Acogida”, el CCN presta apoyo a compañías de danza y coreógrafos independientes: cesión de los estudios de la Gare du Midi, coproducción, acompañamiento técnico, mirada artística o puesta en contacto con el sector profesional.

## Descubriendo el CCN



[Descubriendo el Malandain Ballet Biarritz](#)

## Thierry Malandain

Thierry Malandain es el director coreógrafo del CCN Malandain Ballet Biarritz desde su creación en 1998.

Tras una carrera como bailarín en la Ópera Nacional de París, en el Ballet de la Ópera Nacional del Rin y en el Ballet del Teatro de Nancy, fundó su propia compañía en 1986. Desde entonces, ha creado más de 80 coreografías. Actualmente Thierry Malandain es un coreógrafo famoso en todo el mundo.



### Pocas fechas

**1959** Nace en Petit-Quevilly (Seine-Maritime). Recibe clases de Monique Le Dily, René Bon, Daniel Franck, Gilbert Mayer y Raymond Franchetti.

**1977** Bailarín en la Ópera Nacional de París, el Ballet del Rin y el Ballet del Teatro Francés de Nancy.

**1986** Fundación de la Compañía "Temps Présent" (Elancourt y Saint-Etienne).

**1998** Director del Centro Coreográfico Nacional de Biarritz

**2004** Nominación a los "Benois de la Danza" y Premio de la crítica « Mejor espectáculo extranjero » del XIX<sup>eme</sup> Festival Internacional de Ballet de la Habana por Les Créatures

**2005** « Premio Cultura » de la Fundación Sabino Arana en Bilbao

**2006** Segunda nominación a los "Benois de la Danza" por El Vuelo de Ícaro, creado para el Ballet de la Ópera Nacional de París.

**2009** Director artístico del Festival Le Temps d'Aimer

**2012** Gran Premio de la Crítica de la Prensa por *Une Dernière chanson*.

**2014** Premio Taglioni al Ballet por *Cenicienta*

**2017** Premio de « Mejor compañía » del año para la Asociación Profesional de la Crítica por *Noé*

**2018** Nominación a los "Benois de la Danza" por *Noé*

**2019** Eligido a la Academia des beaux-arts, en la sección de coreografía

**2020** Premio SACD 2020, en la sección de coreografía

### Su estilo

Se define su estilo como "neoclásico": sienta sus raíces en el ballet clásico, al tiempo que ofrece una interpretación contemporánea y personal.

"Mi cultura es la del ballet clásico y sin complejos, y ése es precisamente el que cultivo. Porque aunque reconozco, sin tapujos, que sus códigos artísticos y sociales son de otra época, pienso también que todo ese material heredado de cuatro siglos de historia ofrece recursos inestimables al bailarín. Y yo lo que hago es divertirme, limitarme a buscar la danza que yo amo, clásica para algunos, contemporánea para otros. Una danza que no solo deja la huella del placer, sino que busca reconciliarse con lo sagrado como respuesta a la dificultad de ser."

Thierry Malandain



## Artistas coreográficos

Malandain Ballet Biarritz cuenta con 22 artistas coreográficos: 11 bailarinas y 11 bailarines. Todos estos artistas tienen formación clásica y proceden de distintos países, como Francia, Bélgica, España, Italia, México y Japón.

## Descubriendo a Thierry Malandain y el Malandain Ballet Biarritz



[Enlace de la visita virtual al teatro Gare du Midi](#)



[Thierry Malandain todo un estilo](#)



[El minuto del espectador](#)



[Malandain y la música](#)



[Ser bailarín en el Malandain Ballet Biarritz](#)



[Página web de Malandain Ballet Biarritz](#)



[Canal Youtube de Malandain Ballet Biarritz](#)









# PRIMER CONTACTO CON LA OBRA

## Las Estaciones

coreografía  
música  
decorado y vestuario  
iluminación  
diseño de vestuario  
realización decorado  
realización atrezos  
ayudantes de decorado y atrezo

Thierry Malandain  
Antonio Vivaldi, Giovanni Antonio Guido  
Jorge Gallardo  
François Menou  
Véronique Murat, Charlotte Margnoux  
con la ayuda de Anaïs Abel  
Frédéric Vadé  
Annie Onchalo  
Nicolas Rochais, Gorka Arpajou,  
Félix Vermandé, Raphaël Jeanneret,  
Christof t'Siolle, Txomin Laborde-Peyre,  
Maruschka Miramon, Karine Prins,  
Sandrine Mestas Gleizes, Fanny Sudres y  
Fantine Goulot

ballet para

22 bailarines

« Basado en una idea de Laurent Brunner, director de Château de Versailles Spectacles y de Stefan Plewniak, violinista y principal director musical de la Ópera Real de Versailles, este ballet fusiona las celebérrimas *Cuatro estaciones* de Antonio Vivaldi y las *Cuatro estaciones del año* de su contemporáneo y compatriota Giovanni Antonio Guido, prácticamente desconocidas.

En lo concerniente a su culminación, por la influencia que ejerce sobre la obra el número cuatro vinculado estrechamente a la creación, el equilibrio y la armonía. Cabe recalcar que la obra de Guido sigue las directrices de la "danza bella", movimiento surgido en el siglo XVII con el ideal de gobernar cuerpo y espíritu y realizar movimientos plenos de gracia, rigor y ligereza. Observar además que se suele vincular el número cuatro a la Tierra y a la rueda de la vida, que no siempre gira debidamente, y menos en esta época actual caracterizada por la fealdad, la necesidad y la inhumanidad. Serán *las Estaciones* de Vivaldi las que nos permitan gozar de una danza más natural; y también más humana.

En definitiva, para dotarlo todo de fantasía poética, dos términos que resumen lo esencial. En un decorado de pétalos negros diseminados por todo el horizonte, unos seres alados portan el cortejo fúnebre del espíritu y de la claridad. ¿Por qué? Porque *Las Estaciones* no es más que un ballet, y no hay nada más serio que lo inverosímil. »

Thierry Malandain

## Recursos Las Estaciones



[Extracto video de \*las Estaciones\*](#)



[Erreferentzia musikalak](#)



[Video explicativa \*las Estaciones\*](#)



[Fichero \*Las Estaciones\*](#)

# LAS CUATRO ESTACIONES OBRAS MUSICALES

Para su nuevo ballet, Thierry Malandain ha elegido dos compositores que crearon sendas obras musicales basadas en las cuatro estaciones del año.



Retrato anónimo de un violinista veneciano del siglo XVIII, generalmente considerado Vivaldi (Museo Bibliografico Musicale, Bologna).

## **Las cuatro estaciones de Antonio Vivaldi**

Antonio Lucio Vivaldi, violinista y compositor italiano nacido en Venecia en 1678. Además, fue sacerdote de la iglesia católica.

Vivaldi fue considerado un virtuoso del violín por sus contemporáneos y compuso muchísimas obras musicales. En vida fue muy famoso en toda Europa, pero posteriormente su obra cayó en el olvido hasta ser redescubierta en el siglo XIX y reconocida posteriormente en el siglo XX.

Actualmente Antonio Vivaldi es considerado uno de los principales

músicos y compositores del siglo XVIII.

*Las cuatro estaciones* (*Le Quattro Stagioni* en italiano), compuestas alrededor de 1723 y publicadas en Ámsterdam en 1725, es su obra más conocida.

*Las cuatro estaciones* de Vivaldi son un ciclo de cuatro conciertos o concerti. Una forma musical surgida en Italia, compuesta generalmente por tres movimientos (rápido, lento y rápido), en la que uno o varios solistas dialogan con una orquesta. Aquí, es el violín el que funde su canto con el de los demás instrumentos de la orquesta.

Esta obra musical, acompañada de cuatro sonetos muy descriptivos atribuidos a Vivaldi, es un canto a la naturaleza, que es celebrada con el paso de las cuatro estaciones.

Primera estrofa de cada soneto:

### **La primavera** (primavera)

Llegó la primavera y de contento,  
las aves la saludan con su canto.  
Y las fuentes, al son del blanco viento,  
con dulce murmurar fluyen entre tanto.

### **L'estate** (verano)

Bajo dura estación del sol ardida,  
mústianse hombre y rebaño y  
arde el pino.  
Lanza el cuco la voz y pronto oída  
responden tórtola y jilguero al trino.

### **L'autunno** (otoño)

Celebre el aldeano con bailes y cantos,  
de la feliz cosecha el bienestar  
Y del licor de Baco abusan tantos  
que terminan en sueño su gozar.

### **L'inverno** (invierno)

Temblar helado entre las nieves frías,  
al severo soplar de un terrible viento,  
Correr golpeando el pie cada momento  
de tal frío golpear dientes y encías.



En los sonetos se ilustran las estaciones describiendo elementos, animales y las relaciones entre el ser humano y la naturaleza a través de costumbres, celebraciones y la agricultura.

## Las cuatro estaciones del año de Giovanni Antonio Guido

Giovanni Antonio Guido es contemporáneo de Antonio Vivaldi ya que nació en 1675 en Génova, Italia. Como Vivaldi, es violinista y compositor de música barroca pero es mucho menos conocido porque nos ha llegado muy poca información sobre él o su obra. Trabajó en París como Maestro de Música al servicio de Felipe de Orleans, regente de Francia.

*Las cuatro estaciones del año* de Guido (título original: *Scherzi armonici sopra le Quattro stagioni dell'anno*) fueron publicadas en Versalles, en la misma época que las de Vivaldi, pero probablemente fueron escritas mucho antes. De hecho, se cree que fueron escritas en 1716-1717 en homenaje a los cuatro cuadros pintados por el pintor Jean-Antoine Watteau basándose en las estaciones.

Guido compuso sus cuatro estaciones "a la francesa". Se trata de una serie de danzas diversas: gavota, minueto, bourrée, paspié, rigodón, tambourin, etc. Fue la forma más popular de la música francesa en los siglos XVII y XVIII.



Retrato de Giovanni Antonio Guido, de Antoine Watteau, hacia 1720-1721, Museo del Louvres

La edición de la obra incluye además un conjunto de poemas anónimos titulados *Las personalidades de las estaciones*.



Cérès ou l'été (vers 1717-18) Jean-Antoine Watteau, Washington, National Gallery of Art

### Las personalidades de las Estaciones

El tiempo vuela, mortal,  
el ser humano vuela también,  
la noche da paso al día y  
hace hueco a la aurora,  
cada sesión huye y avanza sin demora;  
Degustemos los dulces placeres,  
el presente es nuestro bien.

He aquí las primeras estrofas de cada estación:

#### Primavera

El triste invierno se fue,  
toma su lugar la primavera  
Todo renace, goza el mundo entero;  
El arroyo, en su discurrir,  
no tiene hielo a su vera,  
Y los campos están abiertos  
para el saltarín cordero.

#### Verano

El aire se inflama: Febo en  
su devenir brillante  
Ha encontrado ya al León colérico.  
Céfiro desaparece, la campiña ardiente  
solo deja cantar al cuco.

#### Otoño

Celebremos con ganas el  
regreso del otoño  
Sigamos con los dulces placeres  
y los juegos en los campos  
Flora ya no reina pero la rica Pomona  
con empeño  
Nos ofrece bellas flores,  
el mejor de los encantos.

#### Invierno

El tiempo del frío,  
entristece la naturaleza  
El sol debilitado se esconde  
del humano ojo  
La tierra a los animales solo ofrece maleza  
que nieves y hielos cubren a su antojo.

## La música barroca

Como mencionábamos, Vivaldi y Guido son dos músicos coetáneos. Su estilo musical se enmarca en un movimiento artístico llamado el barroco.

### Definición de música barroca por el Ensemble baroque de Toulouse

« La música barroca tuvo una vida corte pero volvió a ponerse de moda muchos años más tarde. Surgió en 1600 y se apagó dulcemente en 1750; es decir, duró 150 años aproximadamente.

La palabra barroco viene del término portugués barroco, que significa «perla irregular». Se impone a partir de 1580, en oposición al clasicismo. Utilizado fundamentalmente en los ámbitos de la pintura, la arquitectura o incluso la escultura, el barroco definió una estética que preconizaba la irregularidad, el cambio de formas y el movimiento.

La música barroca surgió en Italia y su figura principal fue Claudio Monteverdi (1567-1643). Posteriormente se expandió por toda Europa y se distingue por numerosos compositores que marcaron dicha época: Georg Philippe Telemann y Johann Sebastian Bach en Alemania, Alessandro Scarlatti en Italia, François Couperin y Jean Phillippe Rameau en Francia pero también en otros países como Austria, Inglaterra o España.

A pesar de la gran cantidad de compositores barrocos, tres de ellos representan el culmen de este movimiento: Antonio Vivaldi (1678 - 1740), Johann Sebastian Bach (1685 - 1750) y George Friderich Handel (1685 - 1759). [...]





▲  
*Instruments de musique*, Evaristo Baschenis (1617-1677)  
Musées royaux des Beaux-Arts de Belgique, Bruxelles

Los instrumentos predilectos de la música barroca son la flauta dulce, la viola da gamba, el clavecín, el laúd o el órgano.

Uno de los inventos más bellos del período barroco es el bajo continuo. Característica fundamental de la música barroca, se distingue por la presencia de dicho movimiento, construido alrededor de uno o dos solistas. Se trata de una línea de base tocada a lo largo de un fragmento por uno o varios instrumentos graves como el violonchelo, la viola o el contrabajo.

No se puede considerar a un compositor barroco como un artista total, de dedicación completa. En realidad, los compositores barrocos se caracterizaban por estar al servicio de un rey, maestro o de la Iglesia. Así, debían escribir la

música que les encargaban estos últimos. Por lo tanto, un músico barroco no era totalmente libre para vivir de su música y escribir lo que le viniera en gana. Era un servidor de la música barroca.

Durante la época barroca surgieron numerosas formas musicales que se consolidaron muy rápidamente en el período clásico: la ópera, la sonata, el concierto de solista y el concierto grosso, germen de la sinfonía.

La música barroca es un estilo de contrastes muy marcados: grave/agudo, oscuro/claro; acorde menor/mayor. »

Origen : [baroquetoulouse.com/mediation/le-baroque-pour-les-nuls](http://baroquetoulouse.com/mediation/le-baroque-pour-les-nuls)









TRAS EL  
**ESPECTÁCULO**  
LAS ESTACIONES

# CLAVES PARA ENTENDER LA OBRA

## Estructura de la obra : cuatro estaciones, cuatro cuadros

El ballet consta de cuatro cuadros: primavera, verano, otoño e invierno (el invierno de Guido hace de final). Los cuatro cuadros correspondientes a las cuatro estaciones están contruidos con el siguiente modelo:

**Primera parte :** la estación comienza con un grupo de bailarines vestidos de negro y música de Vivaldi (3 movimientos por estación).

**Segunda parte :** la estación continúa con la música de Guido y cuatro o dos bailarines vestidos con llamativos trajes barrocos.

**Tercera parte :** la estación finaliza con la música de Guido y uno, dos, tres o cuatro bailarines con traje ceñido de color carne y un guante negro con forma de pétalo. La tercera parte marca el fin de cada estación y el inicio de la siguiente.

En el final con música de Guido, todos los bailarines visten trajes ceñidos de color carne y llevan guantes con forma de pétalo.

PETALES NOIRES DÉCOR. / 1.20 x 0.90 /



17 metros

Quatre Seasons Vivaldi.

▲  
Maqueta de decorado con pétalos grandes  
Creada por Jorge Gallardo



En el ballet se escuchan Las cuatro estaciones de Vivaldi en su totalidad, a diferencia de las de Guido, de las que solo se escuchan fragmentos.

## Decorado

El decorado está formado por 115 piezas que representan grandes pétalos. El conjunto del decorado ha sido concebido y construido en los talleres de Malandain Ballet Biarritz.

## Iluminación

La iluminación es un elemento muy importante en la escenografía de un ballet. Permite crear un ambiente, una atmósfera, un decorado, etc. Su presencia, su ausencia y sus colores tienen significación y contribuyen a la narración o a la expresión de emociones.

Tal y como veíamos anteriormente, el ballet se estructura en distintas partes. A cada parte le corresponde su iluminación y su ambientación.

Al final de cada estación, por ejemplo, cuando los artistas bailan con trajes de color carne y guantes negros con forma de pétalo, el decorado es completamente negro.



## Vestuario y accesorios

La obra tiene tres tipos de trajes:

Trajes negros: Top y falda negros para las mujeres, top y pantalón negro para los hombres;

Trajes barrocos llamativos: se llevan por encima de los negros y los colores difieren en cada estación;

Trajes ceñidos de color carne y guantes negros con forma de pétalo.


Vemos pues que en cada parte del ballet se aplica un código de vestimenta.

Con la música de Vivaldi los bailarines van de negro y con la música de Guido los bailarines llevan trajes barrocos llamativos de colores que evocan los colores representativos de cada estación.

Maqueta del verano,  
Creada por Jorge Gallardo



Primer croquis de Jorge Gallardo,  
creador de decorados y vestuario



Maqueta de la primavera,  
Creada por Jorge Gallardo

Thierry Malandain ha optado por acentuar la parte usada de *Las cuatro estaciones* de Vivaldi, como metáfora de la sociedad contemporánea y retrato de una humanidad sombría. Como la música de Vivaldi no es tan dramática, la función de los trajes es expresar dicha dimensión.

Paralelamente, ha decidido enaltecer *Las cuatro estaciones* de Guido con trajes barrocos. Se conoce a la danza barroca como "la bella danza". La intención aquí es plasmar el ideal antiguo, la belleza y la bondad, así como un pasado idealizado.



## Un canto a la naturaleza

Las obras de Vivaldi y de Guido basadas en la temática de las cuatro estaciones del año son, evidentemente, una celebración de la naturaleza, de sus ciclos y sus características y de la relación entre la naturaleza y el ser humano. Podemos añadir además que nos hablan del tiempo que pasa.

Al ser ambas del siglo XVIII, son testimonio de una época pero, al mismo tiempo, tienen una dimensión universal. Y es que el ser humano, independientemente de su relación con la naturaleza, depende de ella.

En el ballet de Thierry Malandain podemos imaginar que la relación entre naturaleza y ser humano está representada desde ángulos distintos:

La de nuestra época con música de Vivaldi: los bailarines, vestidos de negro, representan una humanidad sombría;

La de un pasado idealizado con trajes barrocos llamativos y música de Guido: el ser humano vive en armonía con la naturaleza;

La de una humanidad que ha perdido algo, una humanidad derrotada, representada por los trajes de color carne y los guantes negros con forma de pétalo.

## Las estaciones en el arte pictórico

Esta temática está muy presente a través de la historia del arte. He aquí algunos ejemplos:

### La Primavera de Sandro Botticelli

[Más información sobre esta obra en el vídeo de Jean-Philippe Mercé, Asesor Pedagógico Departamental de Artes Visuales DSDEN 64.](#)



▲  
La Primavera (vers 1480) - Sandro Botticelli  
Musée des Offices de Florence, Italie



**Las cuatro estaciones  
de Giuseppe Arcimboldo**

Más información sobre esta obra en el vídeo de Jean-Philippe Mercé, Asesor Pedagógico Departamental de Artes Visuales DSDEN 64.



▲  
*Quattro Stagioni* (entre 1563 et 1573) - Giuseppe Arcimboldo  
Musée du Louvre, Paris









PISTAS PARA  
**TRABAJAR**  
EN EL AULA







PISTAS PARA

# TRABAJAR

## EN EL AULA A ADAPTAR

EN FUNCIÓN DE AULA Y CURSO

### Contextualización

Con ayuda de recursos digitales:

- Presentación de CCN Malandain Ballet Biarritz y de Thierry Malandain

### Primer contacto con la obra

- Describir las fotos sacadas del ballet y expresar las primeras impresiones
- Escuchar fragmentos musicales en el aula
- Ver un fragmento del ballet

### Trabajar sobre el tema de las estaciones

- En función del nivel del alumnado, trabajar sobre los distintos mitos y sus adaptaciones en la literatura, el arte pictórico, el cine, etc.
- Enfoque multidisciplinar: literatura, artes plásticas, historias, ciencias de la vida y de la tierra.

### Saber analizar y hablar de una obra

- Pedir al alumnado que describan sus impresiones sobre el espectáculo en...

Un sonido...

Un color...

Un tema...

Un movimiento...

Una emoción dominante...

- Trabajo sobre la escenografía: pedir al alumnado que describa el decorado, iluminación, vestuario y accesorios. Debatir y reflexionar sobre su función, su papel y el mensaje que transmiten.

- Pedir al alumnado que haga una crítica personal de la obra.

# CONTACTOS

## ■ Malandain Ballet Biarritz

**Laura Delprat**, Encargado de actividades culturales  
l.delprat@malandainballet.com  
tel. + 33 (0)5 59 24 62 09

**Ione Miren Aguirre**, Artístico y educativo  
i.aguirre@malandainballet.com  
tel. + 33 (0) 6 08 53 16 69

**Carine Aguirregomezcorta**, Administrador del proyecto: Programa de Arte y Medio Ambiente  
c.aguirregomezcorta@malandainballet.com  
tel. + 33 (0) 6 16 13 47 10  
www.malandainballet.com



avec le généreux soutien d'  
**Aline Foriel-Destezet**







